

Artezkaritza kontseiluaren bilera-data

Datorren asteazkenean, martxoak 11, Artezkaritza Kontseiluaren hurrengo bilera izango da. Bertan aipatzeko gairen bat izanez gero, artezkaritza@udarregi.eus helbidera bidaliz jakinarazi dezakezue.



Martxoak 17. greba deialdia

Jakinarazten da, datorren martxoaren 17rako deituta dagoen greba deialdiaren inguruan Lankide Batzarra ospatu zela eta bozketa egin ondoren, greba deialdiarekin bat egitea erabaki zuela Udarregi Ikastolak.

Eusko Jaurlaritzak zerbitzu minimoak argitaratzen dituenean, jakinaraziko da zein izango den gure antolaketa.



Badator KORRIKA!

Aurtengoan ere ilusio handiz itxaroten dugu, eta **martxoaren 25ean**, 13:45 inguruan, gure herritik igaroko dela aprobetxatuz, egun berezia antolatu dugu ikastolan.

Egun horretan **DBH**ko ikasleak Korrikan irtengo gara eta **HH**ko eta **LH**ko ikasleentzat **irteera-egun bat bezala** antolatuko dugu, eta ikasleak Korrikaren giroaz gozatzeraz irtengo dira.



Proiektu solidarioa KORRIKArekin alde

LH 6ko ikasleak gara eta proiektu solidario batean murgilduta gaudenez, ekintza batzuk antolatu ditugu AEK erakundeari laguntza emateko. Euskal Herriko herritarrei euskara irakasteko ahalegin handiak egiten dituzte eta lan horretan jarraitzeko gure aletxoak jarri nahi dugu. Horretarako, **martxoaren 9tik 13ra** honako [ekintza hauek](#) antolatu ditugu eta jasotako diruarekin **kilometro bat** erosiko dugu.

“Autismora hurbiltzen” hitzaldia

Autismoaren inguruko kontzientziazio eta ahalduntze hitzaldi-tailerra izango da.



Perfil honetako haur baten jokaera eta jarrera asko ulertzea zail egiten zaigu, eta sarri askotan, ezjakintasunak eta beldurrak eraginda, pertsona hauekiko aldentzeko joera izan dezakegu. Autismoa duen pertsonaren bat aurrean izanez gero, baliagarri izango den informazioa eskainiko da. Hau da, inguruan izan daitekeen persona neuroanitz hori piska bat hobeto ulertu eta harreman goxoago eta naturalago bat izateko, baliabide eta erremintak eskaintzea izango da helburua. Bizi dugun gizarte honetan aniztasuna errealitate bihurtzea, guztion elkarlanaren baitan dagoela uste dugulako.

NOIZ: martxoaren 23an 17:00etan.

LEKUA: Agerialdeko 3. solairuan (LHko 2.zikloa)

NORENTZAT: Gurasoei zuzenduta dago baina interesa izan lezakeen edonorentzat aberasgarria izan daiteke.

HIZLARIAK: Miriam (haur autista baten ama) eta Xabi Gesalaga (Udarregiko hezitzailea).

Tailerrera etortzeko asmoa izango bazenute, mesedez **bete [galdetegi hau](#) martxoaren 13a baino lehen.**

Familiak eragile hizkuntzen erabileran

Ikastolen Elkartek antolatuta online izango diren bi hitzaldi datozkigu datozen asteetan.

Lehen Paula Casaresen eskutik izango da **martxoaren 11an, asteazkenez, 18:30-19:30** bitartean: FAMILIAK ETA HIZKUNTZEN GARRANTZIA landuko da bertan.

Bigarrena Kike Amonarrizen eskutik dator, **apirilaren 22an, asteazkenez, 18:30-19:30** bitartean: FAMILIAK ETA HIZKUNTZAREN ATXIKIMENDUAz arituko da.

Hitzaldi hauek entzun ondoren Udarregi ikastolako gurasookin hausnarketa partekatu bat egin nahi genuke.

Animatzen zaretenok eman ezazue izena segidako QR kodea baliatuz hitzaldietarako lotura eskuratzeko edo/eta elkarrekin hausnartu nahi duzuela adierazteko.

Hemen [hormairudia](#)



Irakurketa-solasaldia

Martxoaren 16an, 17:30ean Sutegi Liburutegian, IRAKURKETA-SOLASALDI saio berri bat; 11-12 urtetik gorakoei zuzendua (**LH6-DBH**), Yolanda Arrietaren **TXOKOLATEGIA** izango dugu **mintzagai**.

Lliburuak jada **eskuragarri** ditugu Liburutegian). Txokolatea tartean izango dugu, nola ez!



HAUR HEZKUNTZA

Zorriak

HH 4ko ikasle batzuegan zorriak sumatu ditugu.

Norberak bere seme/alabarekin egoera horretan ohikoak diren higiene neurriak hartzea eskatu nahi dizuegu.

NEURRI HAUEK ERAGINKORRAGOAK IZAN DAITEZEN SAIATU DENOK ASTEBURU HONETAN EGITEN TRATAMENDUA.



LEHEN HEZKUNTZA

LH 1ekoen irteera

Datorren astean, eguraldiak laguntzen badu, lantzen ari garen gaiarekin lotuta Donostia hiriburura egun osoko irteera egingo dugu LH 1ekook.

Trenez joateko asmoa dugunez **MUGI txartela eramatea ezinbestekoa** izango da. Haurraren txartelik ez badaukazue pertsonalizatu gabea erosi omen liteke ordainketarako.

Bestela, bidaia $1,95 \text{ €} \times 2 = \mathbf{3,90 \text{ €}}$ kostako denez, eskudirutan ekarri beharko duzue gelara. Zuen seme-alabak ohar bat eramango du etxera eguna zehaztuz. Eskola ordutegia errespetatuko da (9:00-16:30).



Irteera kobrantza

❖ LH3. maila

Datorren astelehenean, martxoak 9, LH 3. mailako ikasleek Zinemaldira egindako irteeraren kostua (5,90 €) eta kurtso amaierako irteeraren 2. zatia (25 €) kobratuko da. Kostua guztira **30,90 €** izango da.



❖ LH4. maila

Datorren astelehenean, martxoak 9, LH 4. mailako ikasleek Zinemaldira egindako irteeraren kostua (**5,90 €**) kobratuko da.

BIGARREN HEZKUNTZA

Bordelera bidaia: guraso bilera martxoak 16

Frantsesa ematen duten **DBH3**ko ikasleek Bordelera irteera egingo dute martxoaren 23tik 25era. Horri buruz hitz egiteko eta bidaiari buruzko informazioa partekatzeko, bilera bat antolatuko dugu ikastolan: **martxoak 16, astelehena, arratsaldeko 17:00etan**. Bileran honetan bidaiaren egitarauaz, eraman beharreko gauzetaz, eta abarretaz hitz egingo dugu.



DBH1 irteera kobrantza

Datorren astelehenean, martxoak 9, DBH1. mailako ikasleek Arditurrira egindako irteeraren kostua kobratuko da. Kostua honela banatzen da:

- Autobusa (joana): 4,50 €
- Sarrera: 3,5 €
- **Guztira: 8,00 €**



DBH4 irteera

Datorren **asteazkenean**, martxoaren 11an, DBH 4. mailako ikasleak, Donostiara irteera egingo dugu. Bertan, Oroimen Historikoaren ibilbidea egingo dugu Gerra Zibilaren nondik norakoak lantzeko. Joan-etorria trenez egingo dugu beraz ikasleek, **MUGI** txartela eraman beharko dute. Ohiko ordutegia izango dute bai ikastolara bertaratzeko eta baita etxera itzultzeko ere.



DBH 4ko familiei zuzenduta

Zuen seme-alaben etorkizun akademiko eta profesionala hurbil dagoela eta, orientazio prozesuan laguntzeko saio berezi bat antolatu dugu ikastolan.

Oteiza Lizeoko ordezkariak etorriko dira guregana Batxilergoko etapari duten eskaintzaren inguruko xehetasunak ematera. Seme-alabek hartu beharreko bideak hobeto ezagutzeko aukera paregabea izango da.



Hona hemen saioaren xehetasunak:

- **Eguna:** martxoak 12, osteguna.
- **Ordua:** 17:00etatik 18:30era.
- **Lekua:** Udarregi Ikastolako aretoan.

Gure seme-alaben hautuetan bidelagun izatea garrantzitsua denez, zuen parte-hartzea eskertuko genuke.